

A dramatic coastal scene featuring a small, overturned wooden boat resting on dark, jagged volcanic rocks. The sea is a deep, moody blue with white foam from a wave crashing against the rocks in the background. The overall atmosphere is somber and evocative.

AINGERUAREN  
PRIBILEGIOAK

DOLORES  
REDONDO

n a r r a t i b a •

narra

## AINGERUAREN PRIBILEGIOAK

*Narratiba, 129*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com);  
91 702 19 70 / 93 272 04 47)

*Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2021eko otsailean*

Jatorrizko izenburua:

*Los privilegios del ángel*

Azaleko irudia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Danele Sarrigurete

© Dolores Redondo Meira, 2021

Pontas Literary & Film Agency adostasunarekin

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-675-7

L.G.: D139-2021

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Dolores Redondo

# AINGERUAREN PRIBILEGIOAK

Itzulpena:  
Danele Sarriugarte



erein

*Eduardo nire maitearentzat.*

*Donostiari, nire hiria baita: bizi naizen artean  
madarikatuko ditut Berwick eta Wellington.*

Aingeruaren ezaugarri baliotsuena ez da haren araztasuna, hegan egin dezakeela baizik. Aingerua gai da edozein unetan buelta eman, eta bere zerua aurkitzeko. Ahalmena du materiari apalenera jaisteko, eta nahi duenean handik ateratzeko.

HENRY MILLER, *Tropic of Capricorn*

Batzuetan, hilobi batean, jakin gabe gordetzen dira bi bihotz hilkutxa berean.

ALPHONSE DE LAMARTINE

## HITZAURREA

Irakurle maiteak:

Eskuarlean duzue idatzi nuen lehenengo eleberria. 2009an argitaratu zen, edizio txiki batean, edo agian ez zen hain txikia, sarritan agertu baitzaizkit irakurleak ale bat eskuan zutela, sinatu nezan, eta beste askok esan didate irakurri nahi zutela. Orain poza ematen dit liburua berriz zuengana ekartzeak.

Nire eleberri guztietan ageri da geruza bat bete ipar haize, euri eta hezetan, nire sustraietatik zuzen datorrena, jaio eta hazi nintzen lekutik, nire inguruan zegoen familia-eredu matriarkaletik, gogor lan egitearen kulturatik, pobreen ohoretik eta heriotzatik.

Gorroto nuen leku hura, nire arima osoarekin gorrotatu ere. Hamar urte eskasekin, irakurle gazte goiztiarra nintzean, ezin nuen irudikatu nire herrian bestelako giro bat egon zitekeenik, garai hartakoa ez bezalakoa: zikinkeria, gasolina-usaina, arraina, estiba-kaxak, gatz-mendiak portuan, emakume mordo bat elizan luto-jantzian, musketa-lurrina putxeetako ate erdi irekietan barna –faroltxo gorri batek bereizten zituen gainerako etxeetatik, eta kale berean zeuden denak, ezker-eskuin–; hildakoen aldeko mezak, portuko turuta langileei deika, izotz-lantegietako amoniako kiratsa eta, hilerrian, batez beste, Espainiako hildako gazteenak.

Nik, garai hartan, Mario Puzoren eleberriak irensten nintuen, eta Bostonekin amets egiten nuen, baita New York eta Los Angelesekin ere; hiri haietara eramane nahi nituen neure

pertsonaiak, beste zeru eta zerumuga batzuetara, moderno-tasunez eta sofistikazioz blaitutako kultura aberats batera, ni jaio nintzen lekuan ez baitzegoen halakorik.

Nerabea nintzela iritsi zitzaidan esku artera *Pequeño Teatro*, Ana María Matuteren eleberri hilezkorra. Arrantzale herri batean gertatzen zen, Espainiaren iparraldean; herri txikia, kostunbrista eta itogarria suertatzen zitzaion protagonista gazteari. Sarritan esaten da irakurtzeak gure mundua handiagotzen duela; liburu hark, ordea, gauza txikien xarma erakutsi zidan, norberaren gauzekiko lilura. Ulertu nuen zentzugabea zela nire istorioak Bostonen edo New Yorken gerta zitezten saiatzea, non eta, hori egin aurretik, ez banintzen gai nire jatorria onartzeko, eta ulertu nuen, halaber, jaioterria gorrotatzea zela hura epaitu, errugabetu eta barkatzera heltzeko prozesuaren parte. Ohartu nintzen ezen, ez banintzen nire sustraiekin adiskidetzen, ez nintzela zintzoa izango, guztiz naturala dela nerabezaroan norbera jaio den lekua gorrotatzea, ilea kizkurtzen zaizun modua gorrotatzea bezain naturala, eta hori maitatzen ikasteko beharrezkoa dela halako heldutasun bat, zeinak ez baitu inongo zerikusirik haztearekin.

Orduan, gorrotatzen nuenaz idaztea erabaki nuen, eza-gutzatik. Eta, idatzi bitartean, deskubritu nuen ez nuela horrenbeste gorroto, maite ere maite nuela pixka bat, edo asko. Jabetu nintzen oker egona nintzela, eta leku hari, bizimolde hari eta hiltzeko manera hari gorroto baldin banion, gorroto izango niola nire azalari berari, zeina orbainez beteta baitzegoen: batzuk ikusgai zeuden, eta beste batzuk ez, baina denak ziren bataila baten sinbolo, galera zein garaipen baten ikur.

Maite ditut nire sustraiak, bakean naiz. Gaur egun, badakit hori ezinbestekoa dela, eta egia horren ondorioz izan



dutela nire hurrengo liburuek halako harrera ona orain arte. Hori da nire formula, halako jakin-mina sortzen duena: batzuek uste dute gauza bihurriren bat dela; beste batzuen iritziz, behin eta berriz erabil daitekeen teknika bat da. Baina, egiaz, zuek –nire irakurleek–, zuek bakarrik ulertu duzue, haur baten begirada garbiarekin, egia dagoela nire liburuen muinean.

Milaka kontu aipatu dizkizuet nire eleberrietan, eta beste milioika geratzen zaizkit oraindik aipatzeko; halere, heriotzarekin baketu behar izan nuen beste ezerekin baino lehen, eta horixe egin nuen eleberri honetan, idatzi nuen estreinakoan.

*Aingeruaren pribilegioak* doluari buruzko eleberri bat da: galera konponezin baten ostean bizi izaten den prozesuari buruzkoa. Bost urte nituela, nik neuk bizi izan nuen prozesu hori, eta, gainera, besteen doluen lekuko izan nintzen: beren aldaera guztietan, beren krudeltasun osoan, ikusi nituen gizon-emakumeen doluak, haurren doluak, istripuek edo gaitzek eragindakoak, heriotza heroikoen zein bortitzen ondoriozkoak. Txiki-txikia zarenean galera handi bati aurrera egin behar badiozu, haurtzaroa eteten da, eta ez da berriro berreskuratzen: desagertu egiten da, batzuetan, betiko. Izan ere, heriotzak, galerak eta doluak erauzi egiten dute gure bizitzaren lehen zatia janzten duen babes-, magia- eta hilezkortasun-estalkia, baina berekin ekarriz txikitxo baten munduari dagokion intentsitatea, garrantzia eta murriztapena. Heriotzaz jabetzeak eta haurrak ere hiltzen zirela ikasteak herioren itzal gupidagabea proiektatu zuen ezagutzen nuen munduaren gainean, gertakari ñimiñoenean ere islatuz bere presentzia eta haren saihetsezina.

Nobela honetan doluaz hitz egiten da zenbait pertsonaiaren bidez eta prozesuaren faseen bitartez: ukazioa, haserrea,

negoziazioa, pena sakona, depresioa eta onarpena. Ez dago zertan fase guztiak pasatu, horietako bakoitzak ez du epe zehatzik, eta, zenbait baldintzaren ondorioz, norberaren oinazea izugarri hazi daiteke, jasanezina bihurtu arte.

Heriotzaz eta doluaz idaztea erabaki nuen jakin bane-kielako gure emozioen infernu horretara bidaiatzea dela nolabaiteko bake bat eskuratzeko modu bakarra.

Haurren psikologoek luze-zabal ohartarazten dutenez, ez badiegu gure txikiei uzten aurre egin diezaioten frustrazioari, ukazioari eta ezinezkotasunari, hainbat arrisku agertu daitezke. Gure gizarteak azken garaiotan minarekin eta oinazearekin egin duenaren isla bat baino ez dela susmatzen dut. Bizkarra eman zaie.

Bizi-zikloaren parte den neurrian onartzen da heriotza; ez da hala gertatzen, ordea, galerak dakarren min eta oinazearekin. Duela mende bat, jende gehientsuena –baita haurrak ere– hileta, beila edo lurperatzeren batera joana zen inoiz. Baina, gaur egun, guraso gehienei pentsaezina iruditzen zaie ume bat heriotzaren erritualera joan dadin baimentzea. Antzeko samarra da helduen kasuan ere. Norbaitek galera handi bat bizi duenean, bere oinazea ulertuko da baldin eta ez bada oso agerikoa. Min neurritsu bat, makillatua, agerraldi publikoei uko egin diena azken mendeetan. Lutoak, arroparen kolore bereizgarriak, gainerakoei jakinarazten zien gure bizitzako bolada zail batean geundela; minean bereizten gintuen. Luto-jantzien ohitura hainbeste errotu zen ezen tristuraren sinbolo izateari utzi baitzion, eta itxurakeria bihurtu; are okerrago, derrigorrezkoa bilakatu zen heriotzaren aurrean, eta, ondorioz, ez zen desiragarria. Ez dut aldarrikatu nahi jendea beltzez jantzi behar denik berriro, bere oinazea erakusteko. Ni

neu beltzez janzten naiz ia denbora guztian, atsegin dudalako besterik ez. Baina gizarteak ihes egin dio, apurka-apurka, minaren adierazpenari, eta gero eta indar handiagoz arbuia-tzen du. Mina errefusatzen dugu; errege-erreginei eta pop-izarreri bakarrik eskaintzen zaizkie hileta faraoniko itzelak; ordea, gaitzetsi egiten dira denboran irauten duten minaren adierazpenak. Horren eraginez, ihes egin dugu, ezkutatu egin gara, tristura ezkutatu dugu estigma bat balitz bezala, jakin baitakigu gizarteak erdeinatzen duen modu batean markatzen gaituela. Irrigarri izatera iritsi gara: lana, bikote-harremana, ezkontza edo adiskidetasuna amaituz gero, ospatu egin behar dugu, gauza berrietara irekiko bagina bezala, zorioneko gertakari bat balitz bezala... Zeinek egon nahi du beti triste dagoen norbaitekin? Eskapo egiten diogu saminari, oinazeari, gaixotasunari eta heriotzari. Gaixo terminalengandik espero dugu heroien antzera portatu daitezen, eta haien lagun eta senideak, berriz, sendo mantendu daitezen, modu positiboan oroi dezaten hildakoa, haren bizitza omendu.

Badakit, jakin, ez dela gai eroso. Badakit askok albo batera utziko dutela liburu hau orrialde honexetan bertan. Baina, oinaze hori bizi izan duzuenontzat, orain bizi duzuenontzat eta hari iskin egitea akats bat dela ulertzen duzuenontzat, hona hemen *Aingeruaren pribilegioak*. Izenburua Henry Miller-en liburu batetik hartua da (*Tropic of Capricorn*), non purutasunaz, aingeruez eta haien egiazko gaitasunez hitz egiten baita, lohirik sakonena zein zerurik gorenena ukitzeko ahalmenaz.

Badago formula bat, lohikeriaz libratzeko balio duena, eta horretarako gakoa ez da purua izatea, hegan egiten ikastea baizik.

DOLORES REDONDO



CELESTE MARTOS-EN BIGARREN  
HERIOTZA



## Argazkia sepian

### *Orain*

Nekez gogoratzen dut garai hura non, esnatzean, bizitzara itzultzen bainintzen heriotza txiki baten ostean bezala, ete-naldi umel eta uterino batean zintzilikatuta egon banintz bezala, oroitzapen-arrastorik gabe. Iratzarri nintzen, loalditik kanporatua, ondotxo jakinik ez nuela han jasoko desio nuen moduko atsedetik, jada ez nintzela gai izango hara itzultzeko, nire esnaldietan bilatzen nuen paisaia etsigarri hartara, ez nuelako lorik egingo berriz.

Nire alboan lotan zetzan gorputz izerditua sentitu nuen, nire madarikazioaren berririk ez zuena. Ahalegindu nintzen haren izenaz oroitzen, baina ez nuen lortu; mendeku justua zen, hura lo zegoelako, inkontziente eta ezjakin.

Mutiko baten aurpegia zuen, nahiz eta bizar hasiberriak kontrakoa adierazi, bularrera arteko azala ilunduz; bisaia puztua zeukan, mozkorren eran, eta heze ere bai, adurra baitzerion ahoko zirrikitutik; listuak, barraskiloaren arrastoak nola, distira egiten zuen komunetik trabeska iristen zitzaigun argiaren pean. Piztuta utzi genuen, elkarren gorputzak aurkitzeko gai izan gintezen garagardo eta porroen zorabioan.

Amaitu zen tabernako musika, eta ostatuko gainerako bezeroak lo zeuden, ezohiko isiltasunean. Gautxori baten kantua heldu zitzaidan zuhaitzen katramilatik; ez nuen ezagutu, eta triste jarri ninduen, haren adur txarreko urrumak umezurtza eta zorigaiztokoa ematen zuelako oso.

Bakardadeak jota, ordu txikitan gure izateari buruz lortzen dugun kontzientzia bereizgarri horrekin, gau-mahaiko tiradera ireki nuen, eta argazki zahar bat atera, eskuztatua eta ertzetan higatua; dotore horitu zen, halako sepia kutsu bat hartuz, zeinak malenkonia eta edertasun handiagoa eranstean baitzizkion. Pakutxaren argazki bakarra gorde dut: Barbotegi baserrian egina. Elkarrekin agertzen gara biok, arropa berdina jantzita –peto bana eta perlezko jertse zuriak–, nire amaren Renault 12aren aurka bermatuta.

Gogoan dut autoa berri-berria zela, eta irudia zuri-beltezean dagoen arren, argi ikusten da txaparen distira –berdea zen, oliben modukoa–, ilunabarreko eguzkiaren argitan. Irudi bitxia da, gero. Biok hain serio eta urrun, helduen tankeran kontzentratuta, haurrak ginela ez bagenek bezala. Nik Pakutxaren alderantz daukat burua, begirada kamerari adi; haren soa, berriz, galduta dago, sukartsu, urruneko zerrategian iltzatuta: eguzki zaharraren azpian, badirudi lantegia sutan dagoela, barrutik gupidagabe irensten duten garrek hartuta, Pakutxa bera bezalaxe.

Toki hori ez da existitzen jada, ez behintzat garai hartan zen moduan. Hainbat aldiz itzuli nintzen, oroimenean gordetako parajearen aztarnaren bat topatu nahian. Bisita bakoitzean,



penaz egiaztatzen nuen apurka-apurka galtzen ari zela tokiaren forma eta muina, ahultzen ari zela, nire begi izutuen aurrean desagertzen, etorkizunaren ikuspegi azeleratu bat baltz bezala.

Hala ikusi nuen, bihozgabetuta, nola aienatu zen zerrategia; negar handiak egin nituen galera horren ondorioz, baina aurreikustekoa zen guztiz, baserriaren mendeko lantegi txiki bat baizik ez zelako: estalki baten gisan inguratzen zuten baso txiki ugarietatik elikatzen zen dudarik gabe.

Denboraren eta laurogeiko hamarkadako oparotasun ekonomikoaren poderioz, urbanizazioak eraiki zituzten baso txiki horietan, etxetzar elkarri atxikiekin, eta zerrategia, aldiz, ganadu kirasdunaren eran, hautsez beteriko biltegi batera baztertu zuten; han ez zegoen jada egur bero moztu berriaren usainik –zuhaitzen odola–, han herdoila eta uherra baino ez zegoen, makinaria ezdeus eta abandonatuari gaina hartuta. Hara joan nintzen azkenengo aldian, eraitsita zegoen dagoneko, eta, zaintzaileak kontatu zidanez, ehun eta hogeitapar-kaleku ipiniko zituzten haren orde.

Dena dela, ezerk mintzekotan, zuhaitz berde eta horixken labirintoa galtzeak mindu ninduen benetan; argazkian ez da ikusten, autoaren atze-atzean dago-eta. Seguru asko, ez zen hainbestearainokoa, eta oroitzapenean zertxobait handitu dut, neskato baten begiekin erreparatzen niolako. Atsegin genuen hosto-pasabideen artean ezkutatzea: helduei gerriraino iristen zitzaizkien; guretzat, ordea, harresi zeharkaezinak ziren, eta han ibiltzen ginen elkarri segika. Gure jolasaren irri eta intziri ia histerikoei jarraituz, batetik bestera lasterka eginez, plazatxo txikietara iristen ginen, eta hango mahai eta banku

egurrezko zein porlanezkoetara igotzen, labirintoa goitik ikusteko.

Bitxia da, bai, argazki hau. Beharbada, bitxia da bere baitan gordetzen duelako argazki bat artelan bihurtzeko behar den osagai hori, denboraz kanpoko zerbait, ikuslea gainditzen duena; edo baliteke argazki guztiz arrunta izatea, eta neuk bakarrik ikustea zuhaixken labirintoa eta zerrategi zaharra lurrun eta errautsezko laino gorri batean bilduta, ilunabarreko eguzkitan, zeina sutan egongo baita betiko nire oroimenean, Pakutxa bezala. Su hori barruan daukat orain; bularra eta eztrria erretzen dizkit, amorru dipsomaniakoarekin.

## Kristal hautsiak

### *Orain*

Ohetik altxatu nintzen, esku batean argazkia neramala eta bestearekin makulu bati eusten niola. Nahi gabe, maiztutako maindirea eraman nuen herrestan izterren artean, eta agerian geratu ziren izenik gabeko ederraren genitalak; hark, ordea, antzinako agindu oinarrizko bati men eginez bezala, esku barruan bildu zituen, iratzarri gabe.

Edalontzi zuri marraduna hartu nuen konketa gaineko arasatik, eta, tarte batean, irteten utzi nuen hodi zaharretan geldo egondako ura, ekarri ohi zuen usain melenga –onddo eta lurrarena– uxatzeko. Goraino bete nuen basoa, eta gainezka eginarazi nion pixka bat, hatz tenkatuak bustitzeko; ondoren, ezpainetara ekarri, eta azken tantaraino edan nuen, hain azkar, ezen segundo batzuk pasatu arte ez bainuen sentitu egarria ase zidala benetan.

Ispiluan, neure begiak ikusi nituen gori-gori, bularrean zebilkidan su berak piztuta, eta aingeruaren arrastoa bilatu nuen itxaropentsu; hezetasunaren zilarbizi herdoilduak, ordea, bestelako zerbait itzuli zidan: putzuen itzal urtsu eta iluna.

Argazkia arasan bermatu eta makulua askatu nuen; erortzean, trabatuta geratu zen konketaren eta hormaren artean,

kolpea arinduz. Nire begien parera igo nuen edalontzia, gal-tzailearen moduan topa eginez, eta konketaren gainean eror zedin utzi nuen. kristalezko ipurdi lodiak kanilaren kontra jo eta zati zorrotzetan apurtu zen, soinu lehor metaliko –ez kristalino– batekin.

Atzera egin nuen, ateraino, lotia ikuskatu eta loaldi etilikoan murgilduta segitzen zuela egiaztatze aldera. Edalontziaren puska bat hartu nuen, eta beira zorrotzaren sentipenak inarrosi ninduen. Ezkerreko eskumuturraren aurka paratuz, ebaki txiki bat egin nuen, azalekoa eta oso mingarria. Kristala haragian sentitzeak hozkia eragin zidan, eta dardarka hasi nintzen, nazkaz eta hotzez, sabela nahastuta.

Kontrola berreskuratu bitartean, hatsanka ari nintzen: begiak itxi, eta osorik urratu nuen eskumuturra tiraldi bortitz batekin. Odola jori atera zen, nire eskua estaliz eskularru gorri baten eitearekin. Dardarizo leun batek hartu zidan gorputza, eta ordura arte mehatxuan ibilitako hotzak erabat estali ninduen, hil-oihal busti eta likatsu batek bezala; izerdi trinko eta gazi bat zabaldu zitzaidan bekokian, bekainen artean irristatuz. Begietan sartu zitzaidan humore gazikara, itsasoko ura nola, eta une batez itsutu ninduen. Altxatu nuen esku dardaratia, bekokitik pasatu, eta izerdiz eta odolez zikindu zen. «Baldarra», pentsatu nuen, ispiluari begira. Konketan utzi nuen odolez blaitutako kristala, eta beste puska bat hautatu, handia hura ere. Lanak izan nituen eskuineko zainak mozteko. Odolaren ondorioz, kristalak irrist egiten zidan, eta ezer ikusten ez banuen ere, hatzak mintzen zizkidala sentitzen nuen, azaleko ebakiak bakarrik eginez.

Geratzen ziren kristal-puskak txikiegiak ziren behar moduan erabiltzeko, eta barre egin nuen nire eldarnioaren aurrean. «Hara, agian beste batean egin beharko dut; edo, ez, hobe dut alboko gelara joan, eta puta atsegin horietako bati eskatu atera dezala hortzordea edalontzitik eta utz diezadala, pixka bat suizidatu nadin». Kristal txikiago bat hartu nuen, punta zorrotza, eta gogor eutsi nion esku barruan, haragian bermatuz; ezpallarekin moztu baino, azalean hondoratu nuen, beheko ezpallari amorruez kosk eginez.

Zauritik odol-turrusta mardulak atera ziren jarioan, edalontziaren hondakinetara eroriz. Ezpala, haragitan trabatuta neukan, erauzten ahalegindu nintzen, baina hatzek, inurrituta, labain egin zuten kristalaren ertzetik, eta, tira egitean, urradura bortitz bat nabaritu nuen besotik sorbaldaraino, arma baten atzerapena balitz bezala.

Inarrosita, ahalegintzeari utzi nion, ziur bainintzen tenidoiren bat moztua izango nuela ordurako. Esku ezdeusa bildu nuen, maitasunez, gorputzaren kontra; bestearekin, ispiluairen kontra bermatutako argazkia hartu nuen berriro.

Odol-putzu bat zegoen zoruko linolio higatuan, eta oinak irristatu zitzaizkidan. Zutik mantentzeko asmoz, konketaren ertzari eutsi nion, baina portzelana zikinean labaindu zitzaizkidan eskuak; makurtzean, nire aldaka hauskorrek ez ninduten zutik eutsi. Saihetsaldean hondoratu zitzaidan atearen eskutokia, eta garrasi bat ito nuen: erortzen utzi nion gorputzari, pixkanaka, lurtean eserita geratu nintzen arte, belaunak tolestuta eta argazkia nire magalean.

Odol-tanta lodi batek lohitu zuen irudia, neskatoen aurpegiak zeharka estaliz; nahigabetuta, garbitzen saiatu nintzen,

baina kontrakoa lortu nuen: geruza gorri fin bat zabaldu zen nire oroitzapenaren gainean. Dena den, jada ez zuen axola, ezerk ez zuen inporta eta zentzua zuen azkenean. Hiltzen ari nintzela ulertu nuen, eta kantuan hasi nintzen oharkabean:

*Ponme la mano aquí, Macorina,  
ponme la mano aquí.  
Ponme la mano aquí, Macorina,  
ponme la mano aquí.  
La luna es un tiburón  
que va tragando a mi vida.  
Ponme la mano aquí, Macorina,  
ponme la mano aquí.*

Ahotsa mehe atera zitzaidan, ia indarririk gabe, nire umezaroko psikofonia baten eran, eta aditu nuenean nola jariatzen zen nire gorputz hebainduaren barnetik, ahots benetan ederra nuela iruditu zitzaidan estreinako aldiz.

Nota bakoitza, nire ahotsaren inflexio bakoitza, berria eta perfektua zen; ahots bikaina zen, orain arte ezagutzen ez zuena, eta kantu miragarri bat egin zuen, hitz bakoitzari zergokion esanahia emanaz. Bazirudien ulermenez eta jakinduriaz bete ninduela bizitza oso batek, eta aski izan zen ulernez ez zela kantu huts bat; erantzun bat zen, formula bat, guztia dekodetzeko balio zuena, eta hain zen gozoa eta samurra ezen barren-barrenean hunkitzen baininduen.

Malkoz bete zitzaizkidan begiak, eta negarrari ekin nion konturatu gabe, esker onez, apaltasunez, emana zitzaidan

graziaren aurrean. Isilik eta garbi egin nuen negar, mirari bat ikustean sortzen den negar bereizgarriarekin; malko lasai eta errespetuzkoak, aingeruaren abesti ederra ez oztopatzeke.

Eskerrak eman nituen isilean, eta pentsatu nuen dena ondo zegoela azkenean, eta merezi zuela halako pena sentitzea baldin eta zeruko entitate hura askatzeko balio bazuen; orduan, baina, mututu egin zen, seinale bati jarraituz bezala. Eskumuturrean nituen ebakiei erreparatu nien. Odola, hasieran turrustan isuri zena, geldo eta patxadaz zihoan orain, presarik erakutsi gabe.

Bizitzaren jarioak errekaak sortu zituen nire zangoen artean, eta kuleroak eta kamiseta blaitzen zituzten. Lastima-sentipen sakon bat sortu zitzaidan bularrean. Pena ematen zidan odol hark, isuri eta galdutako odol guztiak. So egin nien nire haragia zartatzen zuten zauri zabarrei, eta lotsatu egin nintzen nire gorputz gaixoa, hain kaltetua, horrela erabili iza-naz. Beti tematzen zen ni babestu eta berotu nahian, gorputz umiliatu eta torturatu hura.

Haragiaren eskasian, azala gurutzatu nahi zidaten hezur-rek, goseak eta lo ezak tenkatutako azala. Tristeza zen, gero: heriotzaren hurbiltasuna sentitu arte ez nuen lortu piltzar akitu hura maitatzea, zeinak opari ematen baitzidan sor ze-zakeen bero apurra.

Nire ondoan lo egindako mutila bainugelara sartu zen tustean, oinak herrestan eramanez eta hankarteari eta besazpiari esku banarekin hazka eginez, tximino baten antzera. Indarrik izan banu, barre egin izango nukeen, mutikoaren

piura benetan irrigarria baitzen, barrablei hazka eta nire odolean plisti-plasta, erori gabe, baina baldar irrist eginez eta posizio absurduak saiatur, oreka berreskuratzeke eginahalean.

Hura lasaitzen saiatu nintzen, garrasi egiteari utz ziezaioren, esanez ostatuko bezero guztiak esnatuko zituela eta putak zaharregiak zirela halako zalapartekin ibiltzeko.

Eskua luzatu nahi nion, baina nire besoak ikaragarri astunak ziren eta ezin nituen mugitu. «Nire gorputz gajoak ezin du gehiago», pentsatu nuen. Ez nintzen ohartu maskuria eta hesteak nasaitu zitzaizkidanik, baina beroa nabaritu nuen hankartean. Mutilari eskaini nion azken begirada: lortu zuen, azkenean, orekari eustea, eta korrika abiatu zen, orroka, pasabideetan barna; odoletan blai zituen oinak, eta tanpoi eza-baezinak uzten zituen ostatuko zoru pipiak joan, nire bizi-tzaren hondakinekin.

Orduan, hil egin nintzen.

Desharagitzearen une zehatzaz jabetu nintzen, maitasun gorenezko olatu bat lehertu baitzen nire barnean, eta minetik eta hiltzorian zen nire gorputzaren zamatik askatu ninduen. Bulkada horri esker altxatu nintzen, eta nire haragia izandako karamelo likidozko putzutik atera. Atzera egin nuen, nire gorputza hobeto ikusteko; hain zen hauskorra eta enbrionarioa, nahigabe itzela sortzen zidan han botata ikusteak, hautsirik eta ezgai. Hura ikusita, bihotza hautsi zitzaidan, baina haren ohoretan egindako negarrari esker, pena uxatu nuen eta begiak garbitu. Aske eta esker oneko sentitu nintzen nire hezurrengatik, nire sabel hutsarengatik eta hainbeste aldiz urratutako nire haragiarengatik.



Samurtasunez beterik, nire gorputzerantz makurtu nintzen, hainbat urtez emana zidan besarkada epela itzuli nahian; atzera egin nuen, ordea. Banekien jada ezin nuela ukitu.

Hasperen egin nuen, ingurura begiratu. Nire ohaidea bazetorren pasabidean zehar, tiraka zekarrela putetako bat; emakumeak, begietan makarrak zituela eta hortzeriarik gabe, estropezu egiten zuen, etxeko mantal laranja bat janzteko ahaleginetan.

Haien atzetik, nerabeak zetozen, tanga eta tiradun elastikoa soinean; eskaileran gora, berriz, agure insomniaduna ikusi nuen, eta ostalari zaharretako bat, ileordea hala-hola jarrita zuela kaskezur soilean; ezagun zuen seko gogaituta zegoela ohetik atera behar izategatik. Une hartan, nire gorputz gajoaren oroimanean nengoela, Los Rosales ostatuko bezero arraroak nire gelarantz etorri ahala, argiki jakin nuen alde egin beharra nuela handik. Norantz, ez zuen axola. Duda-mudatan hasi orduko ekin nion igoerari; estaltzen ninduen karamelo likidoak hari hauskor likatsuak osatu zituen, orkatila, ukondo eta eskumuturretatik eusten nindutenak: bekoki zein kokotsetik abiatzen ziren, nire gorputzaren gainetik igo eta urruntzen nindoan neurrian apurka-apurka finduz.

## Kresala airean

### *Orain*

Sabaia eta teilatua zeharkatu ondoren, etxearen beste dimentsio bat begiztatu nuen. Goitik ikusita, Los Rosalesek ez zirudien hain lohia: etxe zahar bat baino ez zen, hondatua eta identitaterik gabea, ni neu bezalaxe.

Gauaren lurrinek bete ninduten, bainu gozo baten antzera; sumatu nuen lur beroa arratseko euria lurruntzen, zuhaitz zaharren kutsu sakonak –haize-kirririk eragiten ez zutenak– eta kresala airean, Kontxako badiatik zetorrela Uru-mean gora. Begirada altxatze hutsarekin, han behean ikusi nuen itsasoa, estalki ilun bat bezala hedatuz Donostiako goiko auzoek osatzen zituzten muinoen artean.

Ostatuko bezeroen multzoa nire hilotzaren inguruan zegoen bilduta, mantal laranjarekiko puta buru zutela, aieneak murmurikatuz eta eskuak buruan jarrita. Nire ohaidea, logelako txoko batean belauniko, botaka ari zen paretaren kontra, dar-dar batean eta izerdi patsetan. Agure insomniodunak mespretxuz begiratu zion; bi irain bota zizkion, zaharkituak, aski gizon ez izateari buruz.

Tanga zeraman nesketako bat telefonoz ari zen, anbulantzia bat eskatuz deiadarka; bestea, berriz, pasabidean barna

zetorren, eskutik zekarrela beste puta, etxeko mantal more bat jantzita: azken hori, bainugelara sartu, eta aginduak ematen hasi zen jeneral baten antzera. Kidea paretik kendu zuen eskukada batez, eta maindire bila bidali: izara eskuratutakoan, urratu egin zuen, parean zuela ostatuko nagusi zahar zekena. Gizonak keinu bat egin zuen arrebari eusteko, zeina nebaren tankerakoa baitzen baina biribilagoa –isilean iritsi zen logelara, balantzaka, edozein unetan erori eta biraka ateratzeko zorrian balego bezala—. Ostalariak elkarri begiratu zioten, beren miserian konplize, baina putaren basakeria ikusirik, ez zuten txintik esan beren jabetzaren ustiapenez. Puta nire gorputzaren alboan belaunikatu zen aditu bat bailitzan, mantal morea odolez zikintzeko batere beldurrik gabe, eta eztarrian bermatu zizkidan bere hatz luzeak, ordezeko azazkalekin apainduak.

—Hilda dago –aipatu zuen zahar batek.

—Ixo, ergel halakoa!

Orkatiletatik heldu, eta nire gorputza luzatu zuen, zeharo etzanda utzi arte; zenbait ahotsek murmurikatu zuten zehar hobe zela ezer ez ukitzea, burua altxatu zuen.

—Aire hemendik, denok! –egin zuen marru.

Bi neskek elkar besarkatu zuten, dardarka, txoko batera bilduz; zaharrek, aldiz, atzera egin zuten ateraino, eta han geratu ziren beren artean marmarka.

Putak, trebezia handiz, oihal tirak kiribildu zituen mataza bat osatu zuen arte; ondoren, nire zauriak bildu zituen, nire aurpegi zargalduari so eginez eta ahopean madarikatuz.

—Zozoa, neskato zozoa; zer egin duzu, tuntuna? Sentitzen dut, lehenago ohartu behar nuen, ohartu behar nuen...

Bendak halako indarrez estutzen zituen ezen ordezeko azazkaletako bat, geranioen arrosaz margotua, hegan atera baitzen, eta inguratzen ninduen putzuaren ertzean erori. Negrerez zegoela ohartu nintzen, eta goian egonda ere, ebakiondo lodi eta zaharrak ikusi nizekion, zilizio zurien antzekoak, eskumuturretako azalean haginka.

Ez nuen inongo mugimendurik sumatzen, hala ere, gorantz segitzen nuen poliki-poliki, eta pauso bakoitzean, interesa galtzen nuen han behean gertatzen zenarekiko.

Iparrerantz so egin eta nire hiriari erreparatu nion. Donostia, argiz jantzia, kostaldea marraztuz Haizearen Orrazitik Groseraino.

Pentsatu nuen eder-ederra izango zela argiaren diamanterik gabe ere, eta, une batez, iruditu zitzaidan askoz lehenago ikusia nuela, argiztapena eta lehen biztanleak iritsi aurretik, eta ordurako Easo Ederra zela jada.

Sentipen berriak igarri nituen, ordura arte ezagutu ga-beak; bien bitartean, karamelozko hariak, ia ikusezin bihurtu arte luzatuak, txiki-txiki egin ziren: askatu ninduten, eta zain neuzkan tokirantz proiektatu.

Ni ikustean, irribarre egiten zuten denek, mezu mutuak helaraziz: ongietorri-mezuak ziren, argi jakin nuenez. Aurrerantz egin nuen haien artean, atzealdeko argiaren epeltasuna sentituz eta behiala ezagutu nituenen maitasuna nabaritutuz; orain, zain neuzkan guztiak, nire bidaian laguntzeko prest. Atzera begiratuta, anbulantziaren argi laranja ikusi nituen Los Rosaleseko aparkaleku hautseztatuan kolpez galgatzen; ondoren, eskaileretan gora igo ziren Gurutze Gorriko osasun-langileak, maletatxoak eskuan. Haiek sartzean, baztertu egin

zen ostatu hartuen multzoa, eta biribil bat osatu zuten jarraian langileen inguruan, denak batera azalpenak ematen saiatuz.

Karamelozko hari hauskor haietako beste bat apurtu zen, kristal fin bat bezala, eta indarberrituta segitu nuen gorantz. Argia gero eta indartsuagoa zen, gero eta samurragoa, eta zain neuzkan pertsonen bisaiak argitu ziren, hainbeste ezen haietako batzuk ezagutzera iritsi bainintzen, beren izenez akordatu ez arren.

Osasun-langileek buru-belarri ziharduten, gorputzari hamaika hodi eta orratz atxikiz. Goian, argia gero eta indartsuagoa zen, eta gero eta ilunagoa eta urrunagoa suertatzen zitzaidan han behean gertatzen ari zen guztia; hala ere, sendagileetako bat aditu nuen zera galdetuz:

—Zeinek jarri dizkio bendak?

Mantal morearekiko putak, haserre, zera erantzun zion:

—Nik neuk, eta zer?

—Ezer ez; ziur aski bizitza salbatu diozula, besterik ez.

Putak, bataren mahukak luzatuz, eskumuturrak estali zituen; biratu, eta bainugelatik atera zen, irribarre eginez berak baizik ikusten ez zituen mamuei.

Karmelo-hari berriak, fin-finak, altxatu ziren nire gorputzetik, armiarma-sarearen antzera itsasten zirenak nire azalera. Mugitzeari utzi nion eta zain neuzkanek, berriz, atzera egin zuten. Ez joateko erregu egin nahi nien, baina hari berriak finkatu ziren nire bizkarrean, gomazkoak orain, eta beherantz tira egin zidaten indarrez. Karmeloa likatsu zabaldu zen nire azalean zehar, hariak elkarri lotu eta esteka sendoak osatzen zizuten; bitartean, desagertu egin zen hain sutzuki desio izan nuen argia, eta azken zigorkada batek arrastaka eroan ninduen ambulantiaren atzealdean egonkor zihoan gorputzera.